

09/15 PRENTSA OHARRA

AUTOBUS ZERBITZUAK SAN SEBASTIAN EGUNEAN

San Sebastian egunean, Donostiatik mugitzeko autobusa erabiltzera animatzen ditugu pertsona guztiak. Urtarrilaren 20an, asteartean, Dbusek autobus gehiago jarriko ditu egunean zehar zerbitzuak indartzeko. Urtarrilaren 19an, astelehenean, eta urtarrilaren 20an, asteartean, gauean Gautxori zerbitzuak egongo dira auzoetara joateko.

URTARRILAK 19, SAN SEBASTIAN BEZPERA

1. DBUSEKO AUTOBUS ZERBITZU GEHIAGO, BANDERAREN IGOERAREN AURRETIK

2015eko urtarrilaren 19an, San Sebastian bezperan, BANDERAREN IGOERA dela-eta arratsaldean auzoetako autobus lineak indartuko dira 0:00ak arte, bai Erdialderantz doazen lineetan bai auzoetarantz doazenetan.

Hauek dira indartuko diren lineak:

5-BENTA-BERRI
9-EGIA-INTXAURRONDO
13-ALTZA
14-BIDEBIETA
16-IGELDO
18-APAIZGAITEGIA
19-AIETE
25-BENTA BERRI-AÑORGA
26-AMARA-ERRIBERAK-MARTUTENE
28-AMARA-OSPITALEAK edo 7-AMARA-ANOETA
29-INTXAURRONDO HEGOALD.
32-PUIO ERRONDO

2. GAUTXORI ZERBITZU GEHIAGO GAU OSOAN

BANDERAREN IGOERAREN ondoren, Dbusek **gaueko zerbitzuak emango ditu gau osoan**, goizeko lehen zerbitzuak ematen hasi arte. Dbusek ahalegin handia egingo du auzoetako jendeak gau osoan zerbitzua izan dezan.

Irteera bereziak BOULEVARDETIK auzoetarantz:

- **B1 BENTA BERRI-BERIO-AÑORGA**
0:30etik 07:00etara, 30 minutuan behin
Goizeko lehen irteerak Benta Berriko linean (5 Linea): 7:20, 8:00, 8:40
Lehen irteera Benta Berri-Añorgako linean (25 linea): 8:55
- **B2 - AIETE - BERA BERA**
0:30etik 07:00etara, 30 minutuan behin
Lehen irteerak Aieteko linean (19 linea) Boulevardetik: 7:30, 8:15, 8:45
Lehen irteerak Aieteko linean (19 Linea) Urbietatik: 9:15
- **B3 - EGIA – INTXAURRONDO**
0:30etik 07:15era, 30 minutuan behin
Lehen irteerak Egia-Intxaurrondoko linean (9 Linea): 7:30, 8:15, 8:30, 8:50, 9:10, 9:30, 9:50

- **B4 - AMARA - ERRIBERAK – MARTUTENE**
0:30etik 07:00etara, 30 minutuan behin
Lehen irteerak Amara-Ospitaleetako linean (28 Linea): 7:33, 8:10, 8:50, 9:00
Lehen irteerak Amara-Martuteneko linean (26 Linea): 7:20, 8:20, 9:10

- **B6 - ALTZA**
0:30etik 07:00etara, 30 minutuan behin
Lehen irteerak Altzako linean (13 Linea): 7:36, 8:00, 8:25, 8:50

- **B8 - MIRAKONTXA – BENTA BERRI - APAIZGAITEGIA**
0:45etik 07:15era, 30 minutuan behin
Lehen irteera Apaizgaitegiko linean (18 Linea) Gipuzkoa plazatik: 9:10

- **B9 - AMARA - ERRONDO - PUJO**
0:45etik 07:15era, 30 minutuan behin
Lehen irteerak Errondoko linean (23 Linea) San Bartolome kaletik: 9:30

- **B10 - ZUBIAURRE – BIDEBIETA – BUENAVISTA - ALTZA**
0:45etik 07:15era, 30 minutuan behin
Lehen irteerak Altzako linean (13 Linea): 7:36, 8:00, 8:25, 8:50

Auzoetatik Erdialderantz ere zerbitzuak egongo dira.

Urtarrilaren 20an, 9:00etatik aurrera, jaiegunetako ohiko zerbitzuak hasiko dira funtzionatzen, eta egun osoan indartu egingo dira.

URTARRILAK 20, SAN SEBASTIAN EGUNA

1. DBUSEKO AUTOBUS ZERBITZU GEHIAGO EGUNEAN ZEHAR

Urtarrilaren 20an, San Sebastian egunean, Haurren Danborrada egingo dela eta, Dbusek autobus lineak indartuko ditu erabiltzaileak erdialderantz erraz joan ahal izateko garraio publikoa erabiliz.

2. HAUR DANBORRADA – AUTOBUS GELTOKIEN LEKUALDAKETAK HIRIKO ERDIALDEAN

Kontuan izanda Haurren Danborrada besteak beste Boulevardetik eta Erdialdetik ibiliko dela eta horregatik gunek horiek trafikorako itxita egongo direla, 10:30etik 15:00etara arte hainbat autobus linea beraien geltokiak aldatuko dituzte, zehazki hauek:

- Amara, Loiola eta Martutene aldeko lineak: Easo kaleko 9ra aldatuko dira.
- Antigua aldeko lineak: Londres Hotelaren aldera eta Zubieta kalera aldatuko dira.
- Altza, Intxaurre eta Bidebieta aldeko lineak: Argentinako Errepublikaren pasealekura aldatuko dira.
- Aiete aldeko lineak: Zubieta kalera aldatuko dira.

3. DBUSEKO AUTOBUS ZERBITZU GEHIAGO, BANDERAREN JAITSIERAREN AURRETIK

Urtarrilaren 20ko gauean, **BANDERAREN JAITSIERAREN** aurretik, honako linea hauek beraien zerbitzua luzatuko dute:

- L9-Egia-Intxaurrondo (Boulevardetik): irteerak **23:30ean eta 0:00etan**
- L14-Bidebieta (Gipuzkoa plazatik): irteerak **23:00etan, 23:30ean eta 0:00etan**
- L19-Aiete: irteerak **22:45ean, 23:15ean eta 23:45ean**
- L25-BentaBerri-Añorga: Irteerak **23:30ean eta 0:00etan**
- L26-Amara-Martutene: irteerak **23:00etan, 23:30ean eta 0:00etan**

4. GAUTXORI ZERBITZUAK BANDERAREN JAITSIERAREN ONDOREN 02:00ETARA ARTE

BANDERAREN JAITSIERAREN ondoren, GAUTXORI zerbitzuak egongo dira **Boulevardetik** auzoetarantz 02:00etara arte.

- **B8, B9 eta B10 Lineak:** irteera 00:45ean eta 1:30ean.
- **B1, B2, B3, B4 eta B6 Lineak:** irteera 00:30ean, 1:00etan eta 2:00etan.

Auzoetatik Erdialderantz ere zerbitzuak egongo dira.

Informazio gehiago www.dbus.eus webgunean eta 943000200 telefono zenbakian.